

okerrena, hura izan bait zen erasoaren antzeztoki nagusia.

67 egunetako erresistentzia gogor eta neketsuaren ondoren setiatuak garai- le irten ziren Jaizkibel menditik behera espainiar ejerzitioa heldu zenean, Hondarribiak "Hiri" titulua hartzen zuen sari bezala.

Irun/Hondarribia: Bi alarde desberdin

Bi alardeen sorreren artean dagoen 116 urtetako alde ez da alferra. Gure historiaren bi une oso desberdinei dagozkie biak. Esan liteke, arestian azaldu denaren, holakotan batasuna aurkeztu dute biek historian zehar. Honela, Azkue kapi- nez, 1638-9-7ko Alardearen sorreran

arrazoi eta interes "esentrikoak", "kanpotarrak" aurkitzen direla hein batetan, nahiz eta historia hori ere gurea izan.

Irungo alardearen sorrera, aldiz, autoktonoa da, erabat, Nafarroako Erreinuaren galeraren ospakizun tristea da. Hura ez zen izan "espainolen eta frantsesen" arteko gerra hutsa, baizik eta Nafarroaren alde eta Castillaren alde zeudenen artekoa. 1522ko ekainak 29tik 30rako gau hartan Nafarroak Gazteluzar fuertea galdu zuen Behobia inguruan eta ondoko Aldebeko harriak.

Baina hondarribiarrak ez ziren arrotz izan gertakari sanmartziadarretan ez eta ere irundarrak 1638koei dagokionez. Bi herrien artean etsaiagorik aski egon

tainak eta Hondarribiko bereek paper esentziala jokatu zuten lehen sanmartzialadan.

Botere politiko europarra bereganatzearen monarkia frantsesak eta espainolak eduki zuten burrukaldi katearen zati baten tokia izan zen Hondarribia, eta herriko bizilagunak, berriz, horren aktoreak izan ziren.

Dei ote ditzaieteke "berenak" hondarribiarrek eta irundarrek, herri bezala, festak sorrerazi zituzten gertakari haiei? Setiapena eta defentsa "besteren" mesedetan izan baziren ere, jaia, ordea, "gurea" da. Eta Herria, baita ere.

Koldo Narvarte

HIRI ETA HIRITAR IZENAREN ERABILERAZ

Idatzia bezalakorik ez dago izenak ahalik jatorren gordetzeko; gainera, ofizialki bada hobe. Zoritxarrez, historiak ez dio eman euskarari era ofizialean erabiltzeko aukerarik eta, onerako edo txarre- rako, denborak berea egin du.

Orain, administrazioan euskara erabiltzeko aukera etorri zaigunean, eztabaidarik eta ulertu ezinik anitz sortu du Hondarribia izenak. Hori dela eta, behingoa normalizapenean behar bezala finkatzeko asmoz, proposamenezko zenbait ohar eskaintzera nator, zuzen erabili ahal izateko. Hala ere, ez nuke nahi inori bidea her- tsirik uztea. Beste inork argibide hoberik eman ahal balezake, ez nioke entzungor egingo. Baina, arren, zerbait eskaini nahi duena betor agiri zehatzen argibideetan oinarriturik.

Nere asmoa hiri eta hiritar izenaren erabilera jatorraren adibideak eskaintzea denez, hortarako non oinarritzen naizen jakin nahi duenak lehenago gai hortaz idatzi nituen lanetara jo beharko du, **Bidasoan** aldizkarira. (1)

Hiru zatik osatzen duten izenaren esan nahia: HONDAR-IBI-A. Eta hori dute beren iturri erdarazko Fuenterrabia eta euskaraz ahoz heldu zaigun Ondarribiak.

Hizkuntzak berezkoa du eboluzioa, eta eboluzio hori neurri handi batean onartu beharrezkoa zaigu, baina bere iza- te jatorraren kontrakoa edo nahasmen- dua sortzeko bezalakoa denean zuzenke- ta komeni da. Aldaketak funtsezko arrazo- iak behar ditu eta lehenik eta behin, bi erak euskaratikakoak direnez eta Hondarribiko hiri euskalduna, zentzuzkoa derit- zagu erabakia sustraietan bertan aurkitzea.

Adieraziaren arabera, hara hemen zenbait adibide:

HONDAR- substantiboak hasierako H aspiratua galdu zuen aspaldi eta bazter- tu ezinik ez dugu; baina, orduan euskal- dun izen jatorraren alde jokatzeko indar gabe aurkituko ginake erdaraz hain des- egoki itzulia zen Fuenterrabia-ren au- rrean, zeren F horren zergatia H-ak argi eta garbi erakusten digunez. Horregatik,



Hondarribia, H-kin onartzen ez badugu, nekez baztertuko dugu erdaraz hain bihurri iritsi zaigun Fuenterrabia. Batzuk hala defendatu nahiko dute, espainoltasuna- ren ustean; baina oker daude, zeren izen hori gaskoinak emana denez. Euskaraz- koan aurretik gaskoina jarri nahi duena- ren espainoltasuna ez da bidezkoa. Eta H, F egin zutenak haiek ziren. Bigarren fo- nema, o, u aldatzea maiz gertatzen da euskaldunon artean. Horregatik, inork uka ezinezkoa da Hondarribiaren jator- tasuna.

-ABI, IBI-ren metatesia baizik ez da,

nere lan haretan esaten nuen bezala. Bestalde, ibia, agiririk zaharretan aurkitzeaz gainera, auzoko ditugu Behobia (aintzina, Behobia) eta Urdanibia leku- izenez.

-A, azkenik, artikulua baizik ez da, inesiboan izenak berak hartzen duena, eta bestelakoetan erortzen dena.

Hara hemen erabilera jatorraren adibideak:

Hondarribia
Hondarribian
Hondarribira
Hondarribitik
Hondarribiko

Herritar izena ordea, jentilizio derit- zana: **hondarribiar**, behar du izan, eta ez hondarribitar. Legez, bukaera bokalez (vocal) denean **-ar** eta kontsonantez **-tar** edo **-dar**, kontsonante gogor edo biguna- ren arabera. Adibidez: irundar eta elgoi- bartar edo zaraustar.

Hondarribi, soilik, artikulurik gabe, jentilizio gisa edo pareko, hondarribiar batek herbestean hartzen duen izena da, inoiz kanpokoentzat izengoiti bihurtzen dena. Baina, otoi, inoiz ere ez hiriarena; hiriak euskara jatorrean, artikuluz bukatu beharra du: **Hondarribia**.

Juan San Martin